

Donostia, 2026ko apirilaren 22a

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, GOE-KO OBREN URBANIZAZIOAREN EGOERARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, GOeko obren urbanizazio-egoerari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Etxebizitza Plangintzako eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkari Nekane Arzallusi, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioa dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean adierazi genuen moduan, GOe-ren eta Okendo kultur etxearen arteko eskailerak oso hondatuta daude, horien egoera onartezina da, horiek inauguratu zirenetik hilabete batzuk baino igaro ez diren arren. Eraikin berria egiteko obrak zirela-eta eraiki ziren eskailera berri horiek; izan ere, bertan lehendik zaudenak eraitsi egin ziren, baita Nafarroa hiribidetik Manteora igotzeko erabiltzen zirenak ere.

Batzordean zinegotziak adierazi zuenez, eskailera horien egoeraren erantzukizuna enpresa sustatzailearena eta eraikuntza-enpresarena da; bi horiek eskailerak konpontzeko borondatea azaldu dute, baina horretarako euririk gabeko denbora-tarte bat behar da. Era berean, zinegotziak jakinarazi zuen udal-zerbitzuek beste akats batzuk ere antzeman dituztela, eta horiek ere zuzendu egin behar direla obra behin betiko onartu aurretik.

Hala ere, zinegotziak ez zuen jakinarazi egutegirik zehaztuta ote dagoen, Udalak antzemandako akats guztiak zuzentzeko; izan ere, ez da enpresa sustatzailearen eta eraikitzailearen borondatearen araberako kontu bat, betebeharrak batzuk. Era berean, Udalaren betebeharra da gune publikoetako obrak kalitatezkoak izan daitezen exijitzea, eta obra horiek egiten dituztenek horien gaineko erantzukizuna beren gain hartzea.

Era berean, auzotarrek salatu dutenez, euria egiten duen bakoitzean, Rodileko oinezkoentzako sarbidea ur-jauzi bihurtzen da, eta horren ondorioz, ezin da espaloia erabili.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio GOeko eraikuntza-enpresei eta obren sustatzaileari egutegi bat eska diezaiela, ahalik eta lasterren egin ditzaten udal-zerbitzuek GOeko eraikin berriari lotutako espazio publikoan antzemandako akatsak zuzentzeko obrak.

Arantza González García
Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzia